

# 2

## Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011 Emaitza nagusiak

**Olatz Altuna, Iñaki Iurrebaso, Xabier Isasi, Iñaki Martínez de Luna, Rosa Ramos eta Belen Uranga**

*Euskararen Kale-erabileraren Neurketaren Batzorde Zientifikoa*

kluster@soziolinguistika.org

Sarrera-data: 2012-10-30 | Onartze-data: 2012-11-30

**Laburpena.** *Euskararen Kale-erabileraren Neurketa* ibilbide luzeko ikerketa-lan zabala da. Siadecok 1989. urtean abiatu zuen eta Euskal Kultur Batzordeak –EKB- jarraipena eman; VI. neurketa Soziolinguistika Klusterrak egin du 2011ko udazkenean. Hogeita bi urtetan, beraz, sei argazki atera zaizkio euskararen erabilerari Euskal Herri osoan. Argazki horiek aukera ematen dute une jakin bateko egoera zertan den jakiteko, eta, batez ere, urteotako bilakaera nolakoa den ezagutzeko. VI. Edizio honetan Euskal Herri osoko 97 udalerritan egin da neurketa, eta 154.277 elkarrizketen nahiz 363.616 hiztunen informazioa bildu da. Jasotako datuen bolumen handi horrek bermatzen du fidagarritasun estatistikoa. Artikulu honetan ikerketa honen emaitza nagusiak aurkeztuko dira. • **Hitz-gakoak:** *hizkuntza-erabilera, bilakaera, zonalde soziolinguistikoa.*

**Abstract.** The Street Measurement of Basque Use (*Euskararen Kale-erabileraren Neurketa*) is a broad piece of research going back a long time. It was started by Siadeco in 1989 and continued by the EKB, the Commission for Basque Culture; the 6th measurement was conducted by the Sociolinguistics Cluster in the autumn of 2011. So, over a twenty-two year-period six photos have been taken of Basque use throughout the Basque Country. These photos provide an opportunity to find out what the situation is at specific moments and, in particular, to know how Basque use has evolved over the years. In this 6th Edition the measurement was taken in 97 municipalities, and information was gathered from 154,277 interviews and 363,616 speakers. This large volume of data gathered ensures statistical reliability. This paper will be presenting the main results of this research.. • **Key words:** *language use, evolution, sociolinguistic area.*

## SARRERA

### I

Euskararen Kale-erabileraren Neurketa ibilbide luzeko ikerketa-lan zabala da. Siadecok 1989. urtean abiatu zuen ikerketa eta Euskal Kultur Bartzordeak —EKB— jarraipena eman; VI. neurketa Soziolinguistika Klusterrak egin du 2011ko udazkenean.

Hogeita bi urtetan, beraz, sei argazki atera zaizkio euskararen erabilerari Euskal Herri osoan. Argazki horiek aukera ematen dute une jakin bateko egoera zertan den jakiteko, eta, batez ere, urteotako bilakaera nolakoa den ezagutzeko.

Esan daiteke, inkesta soziolinguistikoarekin batera, kale-erabileraren neurketa dela euskararen bizi-kemenaren adierazlerik adierazgarriena, hau da, egoera soziolinguistikoa zertan den jakiteko tresnarik garrantzitsuena.

“Zenbat erabiltzen da euskara kalean?” galdera horri erantzun nahiak bultzatu zuen ikerketa. Hala, ahozko erabilera jasotzen da kalean. Eremu publikoan, denona den eta inorena ez den espazio librean egiten da ahozko jardunaren behaketa, herritarrak modu espontaneoan ari direla. Ez dago eremu horretan, beraz, hizkuntza jardunean eragiteko interbentziorik.

Ikerketa honen berezitasuna batez ere metodologian dago, izan ere, behaketa bidez jasotzen dira datuak. Neurtzaileek ere ez dute interferentziarik eragiten. Alegia, hiztunari ezer galdetu gabe, norbanakoaren subjektibotasuna albo batera utziz, entzun eta elkarrizketaren hizkuntza jasotzen dute, hiztunaren adina, sexua eta haurren parte-hartzearen informazioarekin batera.

Metodologiari buruzko artikuluan aipatu bezala (BAT aldizkariko zenbaki honetan: Olatz Altuna), 2011ko VI. Edizio honetan Euskal Herri osoko 97 udalerritan egin da neurketa, eta 154.277 elkarrizketen nahiz 363.616 hiztunen informazioa bildu da. Jasotako datuen bolumen handi horrek bermatzen du fidaagarritasun estatistikoa. Udalerriez haragoko emaitzak lortzeko (lurraldeka, Euskal Herria...) hainbat kalkulu estatistiko egin dira, eta horien arabera lagin-akatsa + 0,4koa da %95eko konfiantza-mailarekin.

Ikerketaren emaitza nagusiak aurkeztu aurretik ikerketa honetako laguntzaile izanikoak eta esker oneko oharra ekarri nahi dugu hona. Izan ere, ikerketa honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren, Industria, merkataritza eta turismo sailaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien, 46 Udalen; eta Orona kooperatibaren diru-laguntza jaso du.

---

**Esan daiteke,  
inkesta  
soziolinguistikoa  
rekin batera,  
kale-erabileraren  
neurketa dela  
euskararen  
bizi-kemenaren  
adierazlerik  
adierazgarriena.**

**Euskal Herria  
bere osotasunean  
hartuz gero  
%13,3koa da  
euskararen  
kale-erabilera.**


Bestalde, VI. Kale-neurketa honetan bereziki gogoratu nahi genuke Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*, urte honen hasieran hil zen adiskidea eta irakaslea izan baitzen 1989. urtean erabileraren neurketa bultzatu zuena.

Azkenik, gure esker ona ozenki eman nahi diegu neurketa egiteko lagun ezin hobeak izan diren neurtzaile guztiei, euren kolaborazioa eta prestutasuna ezinbestekoa izan baita lan hau aurrera eramateko orduan.

## 1. EUSKAL HERRIA

Artikuluaren lehen puntu honetan, beraz, ekar ditzagun Euskal Herri osoari dagozkion datu orokorrak.

### 1. Irudia: Hizkuntzen kale-erabilera, 2011. Euskaraz (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra; *Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa*, 2011

Euskal Herria bere osotasunean hartuz gero %13,3koa da euskararen kale-erabilera 1. irudian ikus daitekeen moduan; %83,1koa gaztelaniaren edo frantsesaren erabilera (Euskal Herriko hegoaldean eta iparraldean hurrenez hurren) eta %3,7koa beste hizkuntzetakoa<sup>1</sup>.

Azken hogeita bi urteetan buruturiko neurketetan bildutako datuek erakusten duten bilakaera, berriz, ondorengo irudian ikus daiteke.

**2. Irudia: Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera, 1989-2011. Euskaraz (%)**



Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**1. Taula. Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera, 1989-2011. Euskaraz (%)**

	1989	1993	1997	2001	2006	2011
Errore-tartea beherantz	9,3	11,5	10,9	13,0	13,0	12,9
Datu erreala	10,8	11,8	13,0	13,3	13,7	13,3
Errore-tartea gorantz	12,3	12,1	14,1	13,6	14,2	13,7

Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

Bigarren irudian ikus daiteke, Euskal Herriko Kale-neurketa egiten hasi zenetik, hogeita bi urteko epean, 2,5 puntu egin duela gora euskararen erabilerak Euskal Herriko batz bestekoan. Hasierako edizio hartan, 1989an, %10,8ko erabilera jaso zen, eta azken edizioan, 2011ean, %13,3koa.

Nabarmenezkoa da aipatu igoera lehen urteetan eman zela, azken hamar urteko epean erabilera trabatu egin baita, 2001eko erabilera 2011koaren berdina izan zen Beraz, euskararen kale erabilera geldiene batean dagoela esan dezakegu.

Dena den, azpimarratzekoa da 2006an %13,7ko erabilera jaso zela. Ez zen igoera esanguratsua izan, eta beraz, oraingoan ere ezin dezakegu esan beherakada gertatu denik. Izan ere, dezimal horien gorabehera errore-tartearen barnean sartzen da, eta atera dezakegun ondorio bakarra da erabilera bere horretan mantendu dela gutxi-asko.

**Espero zitezkeen erabilera**

Euskal Herri osoan dugun euskaldunen zenbatekoa kontuan hartuta, erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobeak dira.


**Oro har, euskaldunok hizkuntzarekiko fidelak gara, bestela, eta probabilitate estatistikoaren arabera, are gutxiago erabiliko genuke euskara.**

Oro har, euskaldunok hizkuntzarekiko fidelak gara, bestela, eta probabilitate estatistikoaren arabera, are gutxiago erabiliko genuke euskara. Baieztapen honen oinarrian, J.L Alvarez Enparantzak —Txillardegik— garatutako erabilera isotropikoaren teoria dago.

Txillardegik gune jakin batean dauden euskaldunen proportziotik abiatuta, euskararen erabilerari buruzko kalkulu bat egiten du. Zehazki, zera adierazten du eredu horrek: eremu jakin batean, bertan dauden euskaldun guztiak euskararekiko leial izanez gero (hots, euskalduna euskaldunarekin ahal duen guzti-guztietan euskaraz mintzatuz gero), eta herritarren harremanak guztiz ausazkoak izanez gero (egoera isotropikoa), zenbatekoa izango litzatekeen euskararen erabilera. Kopuru horri “espero daitekeen erabilera” (edo “erabilera isotropikoa”) esan izan zaio; hots, baldintza teoriko horiek betez gero, erabilera zenbatekoa izango litzatekeen.

Kalkuluak eginda, hortaz, Euskal Herrian %4,9koa da baldintza horietan “espero daitekeen erabilera”. Hortaz, Euskal Herriko biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, eta euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz jardunez gero, %4,9koa da espero daitekeen euskararen erabilera. Dena den, Euskal Herrian elebidunen proportzioari (hizkuntza-gaitasunari) dagokionez, errealitate biziki ezberdinak biltzen dira. Egokiagoa da eremua mugatu eta lurraldeen araberrako azterketak egitea. Lurralde bakoitzean kalean behatutako erabilera errearen eta espero daitekeenaren arteko alderaketak egin ditugu 3. irudian<sup>2</sup>:

**3. Irudia. Hizkuntza-gaitasuna, erabilera erreala eta espero daitekeen erabilera. Hego Euskal Herriko lurraldeak. Euskaraz %**



Iturria: Hizkuntza gaitasuna, Euskal Herrian EDB, 2001; EAEn Eustat, *Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistika*, 2006; Nafarroan IEN, *Biztanleriaren zentsuak*, 2001. Erabilera erreala, Soziolinguistika Klusterra, *Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa*, 2011. Isotropiakoa, Soziolinguistika Klusterrak egindako kalkulua.


Kontuan hartu behar da honako hau erreferentzia teorikoa dela, eta jakin badakigu harreman-sareak ez direla ausazkoak izaten. Hots, edonork ez duela edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure ingurukoekin eta adin berekoekin). Zer esanik ez hiri handietan, hauetan gehienekin ez dugu inoiz harremanik izango. Era berean, badakigu euskaldunen leialtasuna ez dela %100ekoa, eta euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla beti euskaraz izaten.

Horiek guztiak horrela izanik, erabilera erreala “espero zitekeena” baino handiagoa izateak, zeharka, zera adierazi nahiko luke: bertako euskaldunak nahiko trinkoturik bizi direla, eta euren arteko harreman-sarea nahiko bizia eta aberatsa dela. Horrela, egunerokoan euskaldunek erdaldunekin erlazio gutxiago izaki, euskararen erabilera estatistikoki espero dena baino handiagoa da. Horrez gain, euskaldunen leialtasunaren nolabaiteko seinale ere bada datu hori.

### Beste hizkuntzak

Badago, nolana ere, kontuan hartzeko beste datu bat denbora-tarte honetan agerian jarri dena (3. irudian jaso dugu): azken bost urteko epean euskara, gaztelania eta frantsesa<sup>3</sup> ez diren hizkuntzen erabilerak modu esanguratsuan egin du gora: %2,6tik %3,7ra. Eta igoera horrek halabeharrez izan du eragina euskararen kaleko presentzian. *Beste hizkuntzak* bezala biltzen diren datu horien azterketa azken bi neurketetan baino ez da egin, eta beraz, ezin esan aurretik zer-nolakoa zen hizkuntza horien kaleko erabilera. Ikus dezagun bada 4. irudian, 2006tik 2011ra beste hizkuntzen erabileraren bilakaera zer-nolakoa izan den.

#### 4. Irudia: Hizkuntza aniztasuna Euskal Herrian; beste hizkuntzen bilakaera 2006-2011 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra; *Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa*, 2006, 2011

**Azken bost urteko epean euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren hizkuntzen erabilerak modu esanguratsuan egin du gora: %2,6tik %3,7ra.**

**2. Taula. Hizkuntza aniztasuna Euskal Herrian; beste hizkuntzen bilakaera 2006-2011 (%)**


	Euskara	Gaztelania/frantsesa	Beste hizkuntzak
2006	13,7	83,7	2,6
2011	13,3	83,1	3,7

Iturria: Soziolinguistika Klusterra; *Hizkuntzen kale-erabileraren VI. Neurketa*, 2006, 2011

**2. LURRALDEKAKO EMAITZAK**

Espero bezala, Gipuzkoan jaso da erabilera mailarik altuena; elkarrizketen %32,7 euskaraz izan dira lurralde horretan. Bizkaian %9,4koa izan da euskararen presentzia. Iparraldean eta Nafarroan %6,2 eta %5,7, hurrenez hurren. Azkenik, euskara gutxien entzun den lurraldea Araba da, %4,0.


**5. Irudia: Hizkuntzen kale-erabilera. EUSKAL HERRIA lurraldeka 2011. Euskaraz (%)**



Iturria: Soziolinguistika Klusterra; *Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa*, 2011

Ikus dezagun ondorengo irudietan, lurraldez lurralde, euskararen kale-erabilerak 1989tik 2011ra izandako bilakaera.

**6. Irudia: Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera GIPUZKOA 1989-2011. Euskaraz (%)**



Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko *Hizkuntzen kale-erabilera* datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**Lurralderik euskaldunena izanik Gipuzkoa, hogeita bi urtean goranzko joera nabarmendu da.**

Lurralderik euskaldunena izanik Gipuzkoa, hogeita bi urtean goranzko joera nabarmendu da. Joera hori etengabea izan da, nahiz eta apaldu egin den azken bosturtekoan.


Bizkaia eta Arabako erabilera-indizean, ordea, ez da aldaketa esanguratsurik atzeman 1993az geroztik; ez atzera ez aurrera dago euskaren erabilera. Alabaina, azken bost urteotan behera egin du zertxobait bi lurraldeetan. Ezbairik gabe, arretaz jarraitu beharreko bilakaera dugu aurrera begira.



**Bizkaia eta Arabako erabilera-indizean, ordea, ez da aldaketa esanguratsurik atzeman 1993az geroztik.**


**Ezbairik gabe, arretaz jarraitu beharreko bilakaera dugu aurrera begira.**

**7. Irudia: Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera BIZKAIA 1989-2011. Euskaraz (%)**




Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko *Hizkuntzen kale-erabilera* datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**8. Irudia: Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera ARABA 1989-2011. Euskaraz (%)**



Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko *Hizkuntzen kale-erabilera* datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**9. Irudia: Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOA 1993-2011. Euskaraz (%)**




Iturria: 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**Nafarroako bilakaerari erreparatzen badiogu 2001etik aurrera geldirik dago, aldaketa esanguratsurik gabe.**

Nafarroako bilakaerari erreparatzen badiogu nabarmentzekoa da lehen bost urteko (1989-1993) puntu bateko gorakadaren ondoren behera egin zuela euskarak 90eko hamarkadan. Aldiz, **2001etik aurrera geldirik dago**, aldaketa esanguratsurik gabe.

**10. Irudia: Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera NAFARROA 1989-2011. Euskaraz (%)**




Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**Euskal Herriko Iparraldean 1997tik 2006ra jaitsi egin zen euskararen erabilera, baina joera hori aldatu egin da azken bosturtekoan; 2011ko datua orain bost urtekoaren ia-ia berdina da.**

Azkenik, Euskal Herriko Iparraldean 1997tik 2006ra jaitsi egin zen euskararen erabilera, baina joera hori aldatu egin da azken bosturtekoan; ikus daitekeenez, 2011ko datua orain bost urtekoaren ia-ia berdina da.

**11. Irudia: Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera IPARRALDEA 1993-2011. Euskaraz (%)**



Iturria: 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

### 3. EUSKARAREN EZAGUTZAREN ARABERAKO ZONALDEKAKO EMAITZAK<sup>4</sup>


Euskararen ezagutzaren araberako zonaldeetako datuak 1993az geroztik bildu dira, eta, beraz, hamazortzi urteko bilakaera azter daiteke. Kontuan hartu behar da, hala ere, zoritxarrez, ezagutzari buruzko daturik ez dagoela eskuragarri Iparraldean, eta, beraz, Hegoaldeko eremura mugatu behar dela bilakaeraren azterketa hori.

Euskal Herriko biztanle gehienak, biztanleria osoaren %70 inguru, zonalde erdaldunetan bizi dira, hau da, ezagutza %25 baino txikiagoa den eremuetan. Egindako ikerketaren arabera, erabilera %3 ingurukoa da zonalde horietan, 1993an ere jasotakoa ia berbera. Nolanahi ere, gorabehera txikia izan du zonalde honetako datuen marrak, izan ere 2006. urte bitartean goranzko joera ikusi zen arren, 1993ko %2,9tik 2006ko %4,1era, ondoren, ia puntu bateko beherakada antzeman baita azken bost urteotan: 2006ko %4,1etik 2011ko %3,0ra.

Euskaraz dakiten biztanleen portzentajea %25 eta %50 bitartekoa den zonaldeetan erabilera %14-15 ingurukoa da 2011ko datuen arabera. Eta bilakaerari dagokionean, ia lau puntuko igoera izan du hamazortzi urtean. Ezagutza %50 eta %75eko tartean dagoen zonaldeetan igoera nabarmena gertatu da, ia zortzi puntukoa hain zuzen. Gaur egun erabilera %40 ingurukoa da.

Azkenik, biztanle gehienek euskaraz dakiten zonaldeetan (%75 eta %100 artean), entzundako hiztunen %66 inguru euskaraz ari ziren. Zonalde horietan hiru puntuko igoera izan du erabilerak 1993tik 2011ra.

**12. Irudia: Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera ZONALDE LINGUISTIKOAREN arabera 1993-2011. Euskaraz (%)**



Iturria:1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]


**Euskaraz dakiten biztanleen portzentajea %25 eta %50 bitartekoa den zonaldeetan erabilerak ia lau puntuko igoera izan du hamazortzi urtean. Ezagutza %50 eta %75eko tartean dagoen zonaldeetan igoera nabarmena gertatu da, ia zortzi puntukoa hain zuzen.**

**Biztanle gehienek euskaraz dakiten zonaldeetan hiru puntuko igoera izan du erabilerak 1993tik 2011ra.**

**4. HIRIBURUAK**

Atal honetan Hegoaldeko hiriburuetan bildutako datuak aztertuko ditugu. Behe Nafarroako eta Zuberoako hiriburuak erabilera portzentajek ez ditugu aurkeztuko, bertan jasotako elkarrizketa kopurua (lagina) urria baita hiriburu mailan datu adierazgarria eta aski sendoa izateko.

### 13. Irudia: Hizkuntzen kale-erabilera HIRIBURUTAN 2011. (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra; *Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa*, 2006, 2011

Donostian jaso da euskararen erabilera handiena hiriburuen artean: %15,9. Gasteizen, Bilbon, eta Iruñean, aldiz, erabilera %3 ingurukoa da (%3,1 Gasteizen, %3,2 Bilbon eta %2,7 Iruñean). Erabilera baxuena Baionan dugu, %2,3. Deigarria da aldi berean, azken lau hiriburu horietan beste hizkuntzen presentzia handiagoa dela euskararena baino.

Hiriburuetakoko euskararen erabileraren bilakaera kontuan hartuz gero<sup>5</sup>, ikus daiteke Donostian 1989tik 2011 bitartean ia sei puntu egin duela gora erabilerak. Baina, 2011ko neurketan duela hamar urte jasotako erabilera maila bera jaso da (%15,9). Bost urte lehenago erabilera %18koa izan zen. Beraz, arretaz erreparatu beharreko datua da hori, hurrengo neurketetan beharakada horrek jarraipenik ba ote duen jakiteko.

Gasteizek eta Bilbok zonalde erdaldunen bilakaera bera izan dute: 2006a bitartean goranzko joera apala eta azken bost urtean zertxobait behera. Bi hiriburuen ezagutza %25 ingurukoa da, eta jaso dugun erabilera %3 ingurukoa. Iruñean, amaitzeko, erabilera bere horretan dago 1997az geroztik, %2,5-2,9ren bueltan.

**14. Irudia: Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera HIRIBURUTAN 1989-2011. Euskaraz (%)**



Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**Gasteizek eta Bilbok zonalde erdaldunen bilakaera bera izan dute: 2006a bitartean goranzko joera apala eta azken bost urtean zertxobait behera.**

**Iruñean erabilera bere horretan dago 1997az geroztik, %2,5-2,9ren bueltan.**

**3. Taula: Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera HIRIBURUTAN 1993-2011. Euskaraz (%)**

	Gasteiz	Donostia	Iruñea	Bilbo
1989	2,0	10,3	1,3	2,5
1993	2,5	9,5	1,8	4,3
1997	2,9	14,0	2,9	4,5
2001	2,8	15,8	2,5	4,6
2006	4,0	18,2	2,8	4,3
2011	3,1	15,9	2,7	3,2

Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**5. ADIN-TALDEEN ARABERAKO EMAITZAK**


Euskal Herriko Hizkuntzen Kale-erabileraren ikerketak lau adin-talde bereizi ohi ditu datuak jasotzerakoan: *haurrak* (2 eta 14 urte bitartekoak), *gazteak* (15 eta 24 urte bitartekoak), *helduak* (25 eta 64 urte bitartekoak), eta *adinekoak* (65 urtetik gorakoak).

Ondoren erakutsiko diren emaitzen arabera, eta adin-taldeen azterketari gagozkiola, bi dira azpimarratu beharreko fenomeno nagusiak:

**Zenbat eta gazteagoa izan elkarrizketako partaidea, orduan eta gehiago erabiltzen dela euskara.**

Gehien hitz egiten dutenetik gutxien hitz egiten dutenera ordenatzen baditugu adin-taldeak, haurrak daude lehen tokian (%19,2), gero gazteak (%13,4), helduak (%11,8) eta, azkenik, adinekoak (%9,7). Horren arabera, zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara. **Zenbat eta gazteagoa izan elkarrizketako partaidea, orduan eta gehiago erabiltzen dela euskara.**


**15. Irudia: Hizkuntzen Kale-erabilera adin-taldeen arabera. Euskal Herria. 2011. Euskaraz (%)**



Iturria: Soziolinguistika Klusterra; *Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011*

Ñabardura bat egin dakioker, nolana ere, aipaturiko hurrenkera horri (haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak); izan ere lurralde gehienetan lege hori betetzen bada ere, Bizkaian adinekoek zertxobait gehiago erabiltzen dute euskaraz helduek baino: %8,3 adinekoek, %8,0 helduek.

**16. Iru-dia: Hizkuntzen Kale-erabilera adin-taldeen arabera. Lurraldeak. 2011. Euskaraz (%)**



Iturria: Soziolinguistika Klusterra; *Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa*, 2011

**4. Taula: Hizkuntzen Kale-erabilera adin-taldeen arabera. Euskal Herria. 2011. Euskaraz (%)**

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA	IPAR ALDEA
Haurrak	6,5	13,7	48,9	7,5	9,6
Gazteak	5,7	8,6	36,9	5,6	6,7
Helduak	3,5	8	28,8	5,4	5,5
Adinekoak	1,2	8,3	22,4	3,3	4,8

Iturria: Soziolinguistika Klusterra; *Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa*, 2011


Azpimarratu beharreko bigarren fenomenoaren erakusgarri 16. Iru-dia dugu: Hori da, akaso, Euskal Herriko Hizkuntzen kale-erabileraren neurketaren bilakaeran gertaturiko aldaketarik esanguratsuena.

Lehenengo kale-neurketa egin zenean, 1989an, haurren artean jaso zen erabilera mailarik altuena, baina bigarren lekuan adinekoen erabilera zegoen, ondoren helduena, eta azkenik gazteena.



**Hogeita bi urteko bilakaera aztertuz gero, ordea, oro har, haurren artean, gazteen artean eta helduen artean erabilerak gora egin du; ez, ordea, adinekoetan.**

**17. Irudia: Hizkuntzen Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeen arabera. Euskal Herria 1989-2011. Euskaraz (%)**



Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**5. Taula: Hizkuntzen Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeka Euskal Herrian, 1989-2011. Euskaraz (%)**

	Adinekoak	Helduak	Gazteak	Haurrak
1989	13,7	9,2	8,5	15,1
1993	12,9	9,9	10,0	16,1
1997	13,3	11,0	11,8	17,5
2001	12,6	11,1	13,6	18,5
2006	10,6	12,0	13,4	19,7
2011	9,7	11,8	13,4	19,2


Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

Hogeita bi urteko bilakaera aztertuz gero, ordea, oro har, haurren artean, gazteen artean eta helduen artean erabilerak gora egin du; ez, ordea, adinekoetan. Belaunaldi gazteagoetan gertatutako igoera horrek eragin du, hain zuzen, adin-taldeen lekualdatzea erabilera-mailaren hurrenkeran:

- 1989. urtean: **haurrak>adinekoak>helduak>gazteak** izatetik
- 2011. urtean: **haurrak>gazteak>helduak>adinekoak** izatera igaro baita.

Ondoko irudietan islatuta ikus daiteke lurraldez lurraldeko adin-tartearen arabera erabileraren bilakaera:

**18. Irudia: Hizkuntzen Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeka GIPUZKOA 1989-2011. Euskaraz (%)**



Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**Gipuzkoan gazteen artean igo da gehien euskararen kaleko erabilera: 20 puntutik gorako igoera ikusgarria izan dugu. Aldiz, adinekoen artean ia bost puntuko galera izan dugu.**

**6. Taula: Hizkuntzen Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeka Gipuzkoan, 1989-2011. Euskaraz (%)**

	Adinekoak	Helduak	Gazteak	Haurrak
1989	27,0	19,2	16,6	34,1
1993	26,7	19,6	19,7	34,5
1997	26,4	22,4	25,4	39,4
2001	26,4	23,9	31,2	42,3
2006	21,7	27,3	34,2	48,6
2011	22,4	28,8	36,9	48,9


Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

Gipuzkoan hogeita bi urteko epean aldaketa oso esanguratsuak gertatu direla ikus daiteke 18. irudian: gazteen artean igo da gehien euskararen kaleko erabilera: 1989ko %16,6tik 2011ko %36,9ra, 20 puntutik gorako igoera ikusgarria izan dugu. Haurren artean eta helduen artean gertaturiko 14,8 puntu eta 9,6 puntuko igoerak ere, hurrenez hurren, nabarmentzekoak dira. Aldiz, adinekoen artean ia bost puntuko galera izan dugu: %27,0tik %22,4ra jaitsi da.

Ondorengo irudian (19. irudia) bildu dira Bizkaiko datuak. Ikus daitekeenez, Gipuzkoan gertatu bezala, 1989tik 2011ra, gorabeherak

izan dira, baina oro har, adinekoetan izan ezik erabilerak gora egin adin-talde guztietan. Nahiz eta haurretan azken bost urteetan behera-kada atzeman den, etorkizuneko neurketetan bereziki erreparatu beharko diogu gertakari horri. Hala ere, aipagarria da lurralde honetan igoera hori 2 puntu eta 2,6 puntuen artekoa izatea, ez handiagoa. Aldiz, adinekoen artean jaitsiera 4,5 puntukoa izan da, 12,8tik %8,3ra egin baitu behera. Hala ere, jaitsiera hori gertatu arren, beste lurraldeetan ez bezala, adinekoen artean oraindik zertxobait altuagoa da euskararen erabilera (%8,3) helduen artean neurtu dena baino (%8,0).

**19. Irudia: Hizkuntzen Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeka BIZKAIA 1989-2011. Euskaraz (%)**



Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]


**7. Taula: Hizkuntzen Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeka Bizkaian, 1989-2011. Euskaraz (%)**

	Adinekoak	Helduak	Gazteak	Haurrak
1989	12,8	6,8	6,6	9,1
1993	11,3	8,0	8,1	13,0
1997	11,3	8,9	9,2	14,4
2001	10,6	8,9	10,2	16,0
2006	9,3	9,3	8,3	15,8
2011	8,3	8,0	8,6	13,7

Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

Ikus dezagun ondoren Araban neurtutako bilakaera 20. irudian. Gipuzkoan eta Bizkaian bezala Araban ere euskararen erabilera igo egin da haurren eta gazteen artean, eta jaitsi adinekoen artean. Igoera hori 0,8 puntukoa eta 2,4 puntukoa da haurren eta gazteen kasuan, eta jaitsiera 3,6 puntukoa da adinekoetan. Aldiz, helduen artean erabilerak ez du izan aldaketarik. Kontuan hartu behar dugu, dena den, azken bost urtetan, 2006tik 2011ra, erabilerak zertxobait behera egin duela haurretan, gazteetan eta helduetan. Etorkizuneko neurketetan arretaz jarraitu beharreko gertaera da, dudarik gabe.

**20. Irudia: Hizkuntzen Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeka ARABA 1989-2011. Euskaraz (%)**



Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**8. Taula: Hizkuntzen Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeka Araban, 1989-2011. Euskaraz (%)**

	Adinekoak	Helduak	Gazteak	Haurrak
1989	4,8	3,4	3,3	5,7
1993	5,2	3,5	4,7	5,4
1997	2,0	3,8	3,7	5,5
2001	1,5	3,9	3,9	6,8
2006	0,8	4,6	6,6	6,8
2011	1,2	3,5	5,7	6,5

Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**Gipuzkoan eta Bizkaian bezala Araban ere euskararen erabilera igo egin da haurren eta gazteen artean, eta jaitsi adinekoen artean. Igoera hori 0,8 puntukoa eta 2,4 puntukoa da haurren eta gazteen kasuan, eta jaitsiera 3,6 puntukoa da adinekoetan.**

**Nafarroako eta Iparraldeko hiru lurraldeetako adin-taldean erabileraren bilakaerak, ez datoz guztiz bat Euskal Autonomi Erkidegoko lurraldeetan topatu dugun joerarekin.**


**Nafarroan adinekoen eta haurren artean behera egin du euskararen erabilerak, 1989tik 2011ra bitarteko epean.**

Nafarroako eta Iparraldeko hiru lurraldeetako adin-taldean erabileraren bilakaerak, ez datoz guztiz bat Euskal Autonomi Erkidegoko lurraldeetan topatu dugun joerarekin. 21. eta 22. irudietan jaso dugu bi eremu horien bilakaera.

Nafarroan adinekoen eta haurren artean behera egin du euskararen erabilerak, 1989tik 2011ra bitarteko epean. Adinekoen artean ohiko portatera da gainerako lurraldeetan ere, baina haurren artean beste lurraldeetan igoera gertatu da.

Bestalde, gazteen artean eta helduen artean erabilerak ez du aldaketa esanguratsurik izan aztergai dugun epealdian, bere horretan egonkor mantendu da kale erabilera.

**21. Irudia: Hizkuntzen Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeka NAFARROA 1989-2011. Euskaraz (%)**



Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**9. Taula: Hizkuntzen Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeka Nafarroan, 1989-2011. Euskaraz (%)**


	Adinekoak	Helduak	Gazteak	Haurrak
1989	5,8	5,3	5,3	9,8
1993	6,5	5,8	7,1	10,6
1997	6,1	6,0	6,4	8,8
2001	5,2	5,1	6,4	7,6
2006	5,3	5,2	6,2	7,8
2011	3,3	5,4	5,6	7,5

Iturria: 1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: Siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

Ipar Euskal Herrian haurren eta gazteen artean gorako joera atzeman da erabileraren bilakaeran, 4,5 puntuko igoera haurretan eta 3,5 puntukoa gazteetan. Aldiz, beheranzko joera gertatu da helduen eta adinekoen artean: 0,7 puntuko jaitsiera helduetan eta 6,5 puntukoa adinekoetan.

**Ipar Euskal Herrian haurren eta gazteen artean gorako joera atzeman da erabileraren bilakaeran, 4,5 puntuko igoera haurretan eta 3,5 puntukoa gazteetan.**

**22. Irudia: Hizkuntzen Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeka IPAR EUSKAL HERRIA 1993-2011. Euskaraz (%)**



Iturria: 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]

**Adin-taldekako banaketarik egin gabe, sexua ez da aldagai determinantea euskararen erabileran, alegia, emakumezkoen eta gizonezkoen erabilera-portzentajeak oso antzekoak dira lurralde guztietan.**

**10. Taula: Hizkuntzen Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeka Ipar Euskal Herrian, 1993-2011. Euskaraz (%)**

	Adinekoak	Helduak	Gazteak	Haurrak
1993	11,3	6,2	3,2	5,1
1997	15,0	7,9	4,4	6,2
2001	12,8	6,6	3,8	6,9
2006	9,2	5,7	4,0	6,8
2011	4,8	5,5	6,7	9,6

Iturria: 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011ko Hizkuntzen kale-erabilera datuak. [Egileak: EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; Soziolinguistika Klusterra 2006 eta 2011]


## 6. SEXUA ETA ADIN-TALDEEN ARABERAKO DATUAK

I  
Atal honetan hiztuna emakumezkoa ala gizonezkoa izateak hizkuntza-portaeran eraginik ba ote duen aztertuko dugu. Ondorio interesgarriagoak ditugu, sexuaren aldagaia adin-taldeen arabera aztertzen badugu. Izan ere, oro har, adin-taldekako banaketarik egin gabe, sexua ez da aldagai determinantea euskararen erabileran, alegia, emakumezkoen eta gizonezkoen erabilera-portzentajeak oso antzekoak dira lurralde guztietan. Aldea puntu erdia baino txikiagoa da.

Salbuespena Iparraldean gertatzen da, bertan aldea puntu osokoa da, gizonezkoen erabilera emakumezkoen aurretik dago.

Aldiz, adin-taldea sexuaren eragina aztertuz gero, kontuan hartzeko joerak topatu ditugu. Izan ere, emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonezkoek baino adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik. Portaera hori ia lurralde guztietan gertatzen da, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan salbu.

**23. Irudia: Hizkuntzen Kale-erabilera sexu eta adin-taldeka. Euskal Herria 2011. Euskaraz (%)**




Iturria: Soziolinguistika Klusterra; Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011

**Adin-taldeka sexuaren eragina aztertuz gero, emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonezkoek baino adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik. Portaera hori ia lurralde guztietan gertatzen da, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan salbu.**

Ipar Euskal Herrian, haurren artean nesken erabilera altuagoa bada ere, gainontzeko adin-taldeetan mutilen erabilera aurretik dago.

**24. Irudia: Sexu-banaketaren araberako hizkuntzen kale-erabilera adin-taldeka. Ipar Euskal Herria 2011. Euskaraz (%)**




Iturria: Soziolinguistika Klusterra; Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011



Nafarroan parez pare dago emakumezkoen eta gizonezkoen erabilera haurretan, gazteetan eta helduetan. Adinekoetan, alabaina, altuagoa da gizonezkoen erabilera emakumezkoena baino, hiru puntuko aldea dago.

**25. Irudia: Sexu-banaketaren arabera hizkuntzen kale-erabilera adin-taldeka. Nafarroa 2011. Euskaraz (%)**



Iturria: Soziolinguistika Klusterra; *Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa*, 2011


## 7. HAURREN PRESENTZIA

### I

Jakina denez, *haurren presentzia* eragin handiko aldagaia da euskararen kale-erabileran; modu esanguratsuan baldintzatzen du haurrak inguruan izateak euskaraz hitz egiteko garaian, haurrak hiztunak izan zein eta besterik gabe presente egon, eragina du ahozko erabileran. Ondorio nagusia, beraz, argia da: haurrak eta nagusiak<sup>6</sup> elkarrekin daudenean jasotzen dira erabilera-datu altuenak. Haurrak nagusien presentziarik gabe ari direla, edo nagusiak haurren presentziarik gabe, erabilera baxuagoa da nabarmenki.

Esate baterako, Araban alde benetan esanguratsuak jaso dira: haurrak nagusirik gabe ari diren elkarriketetan hiztunen %2,1 euskaraz ari dira; nagusiak haurrik gabe ari direnean %2,4 ari dira euskaraz, eta, haurrak eta nagusiak elkarrekin ari badira, %7,6 ari dira euskaraz.

**26. Irudia: Hizkuntzen kale-erabilera haurren presentziaren arabera. Lurraldeak 2011. Euskaraz (%)**




Iturria: Soziolinguistika Klusterra; *Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa*, 2011

***Haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean jasotzen dira erabilera-datu altuenak. Haurrak nagusien presentziarik gabe ari direla, edo nagusiak haurren presentziarik gabe, erabilera baxuagoa da nabarmenki.***

Aipatu joera orokorrak salbuespena Gipuzkoan du, euskara gehien erabiltzen den lurraldean. Gipuzkoan haurrak eta nagusiak elkarrekin aritu, edo haurrak bakarrik aritu, erabilera antzekoa dugu: %45 ingurukoa. Aldiz, nagusiak bakarrik ari direnean %23,7koa da erabilera.

**Aipatu joera orokorrak salbuespena Gipuzkoan du, euskara gehien erabiltzen den lurraldean. Gipuzkoan haurrak eta nagusiak elkarrekin aritu, edo haurrak bakarrik aritu, erabilera antzekoa dugu.**

**27. Irudia: Hizkuntzen kale-erabilera hauren presentziaren arabera. GIPUZKOA 2011. Euskaraz (%)**



Iturria: Soziolinguistika Klusterra; *Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa*, 2011

## AMAITZEKO

### I

Artikulu honetan Soziolinguistika Klusterrak 2011ko udazkenean buruturiko *Hizkuntzen kale-erabileraren neurketaren* emaitza nagusiak aurkeztu dira. Neurketaren Batzorde Zientifikoak nabarmendutako ondorioak ekarri ditugu bertara. Hemendik aurrera, nahi izatera, irakurleari dagokio horien interpretazio kualitatiboa burutzea. Horretarako lagungarriak izango dira, zalantzarik gabe, BAT aldizkariako ale honetan bildu diren adituen irakurketak eta gogoetak. Horrez gain, Kale Neurketek hogeita bi urteko ibilbidean utzitako datu zehatzak ere Soziolinguistika Klusterreko webgunean kontsulta daitezke. ●

## OHARRAK

1. Gaztelania beste hizkuntzen multzoan sartu dugu Iparraldean, eta modu berean frantsesa Hegoaldean.
2. Kontuan izan behar da hizkuntza-gaitasunaren datuak, lurraldeka, ez direla iturri berekoak, ez eta urte berekoak ere. Hauek dira eremu edo lurralde bakoitzeko iturriak eta urteak: Euskal Herrian EDB, 2001; EAEn Eustat, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistika, 2006; Nafarroan IEN, Biztanleriaren zentsuak, 2001.
3. Irudian, hizkuntza-gaitasuna datuekin eta kale-erabilera datu errealekin espero daitezkeen erabilera isotropiakoa kalkulatu da.

3. Gaztelania beste hizkuntzen multzoan sartu da Iparraldean, eta modu berean frantsesa Hegoaldean.
4. Zonalde bakoitzeko udalerrien taldekatzea 2001eko zentsuaren arabera egin da. Erreferentzi hori hartuta udalerrri-multzo bera mantendu da, aurreko eta ondorengo neurketetan, nahiz eta kasu batzuetan udalerrri batzuek ezagutza-tipologiaz aldatu.
5. Baionan, aurreko edizioetako lagina ez da nahikoa datu fidagarriak izateko. VI. Neurketa honetan landa-lana orduak bikoiztu egin dira jasotako datu kopurua handiago izateko.
6. Nagusitzat hartzen ditugu gazte, heldu eta adinekoak.